BURUKETAK

1. Julenek txikle bat eta karamelu bat erosi nahi ditu. Txikleak 27 zentimo eta karameluak 36 zentimo balio ditu. Zenbat diru behar du txiklea eta karamelua erosteko?

2. Ainhoak 456 txapa zituen, baina lagun bati 432 eman dizkio. Zenbat txapa ditu orain?

3. Bilera batean 315 lagun elkartuko dira. Hasi baino lehen 125 emakume eta 98 gizon daude. Zenbat lagun falta dira?

4. Astelehenean 125 pertsonak eman zuten izena ibilaldi baterako; asteartean, 196 pertsonak; eta asteazkenean, 275 pertsonak. Zenbatek eman dute izena guztira?

LIVEWORKSHEETS